

OSOQUINEKO ERAKASKERA

1994-95-

ELHEKETA: ASTE AUNTAKO SOLAS. GAIA.

- 1- Luisek atxeman zuena ardi galdia?
- 2- Erakutsi zazu Eñauten onerria.
- 3- Zertako Eñautek nahi zuen egiazpate Luisen errana?

II DONADDA 4

— Bai, hila. Mendi guzia ikertu dut, batzuetan bi aldiz pasatuz leku berean. Hantxet, Beraineko etxolaren gainkaldean, harroka baten artean atxeman dut. Hiruetan pasatua nintzan inguru heetan. Ahalge nintzan hemen sartzeko ardi haren berri jakin gabe. Ez nuen hotzik senditzen. Ardi haren atxemaiteko esperantzak indarrak emaiten zaizkidan. Bizirik ekartzea uste nuen.

— Ontsa duk mutikoa, erran zuen artzain zahar-rak bere esku zahala Luisen sorbaldan pausatuz. Etzan hadi... A! to! gose izan behar duk... Xingar eta arrotze erreko deat. Bero-beroa janen duk.

— Ez du balio, oseba, ni bezain akitua iduri duzu ardi haren arranguran.

— Ez. Etzan hadi ixtan bat. Badakiat zer den ardi baten hila ibiltzea. Gose hiz. »

Hazketarat joaiteko tenorea hurbiltzen hasia zen. Hotzak uste baino lehen abiatuak ziren. Biharamun goizean ikaragarriko izotz batek zuri-zuria ezarriak zituen mendi kasko hek guziak. Arbolen adarrek hilak iduri zuten, beltz elur xuriaren azpian.

Gau hartan artzain zaharrak etzuen lo handirik egin. Etzen bere gustuan. Iratzartu zelarik, Eñaut halako arrangura batek hartu zuen. Gauaz lotarik aments txar batzu eginak zituen. Bere ardfari pentsatzen zuen. Uste ukan zuen Luisek gezur bat errana ziola, hari atsegin egiteko eta bere buruaren garbitzeko. Alta etzezaken onhart iloba halakoa zela.

— Ondarrean zer da haraino joaitea, ardiaren

ikusterat. Egun guzia ene eskuko diat, pentsatzen zuen.

Segur nahi zuen izan ardi hura hila zela, berak ikusi, han harroka zilo batean itzulipurdikatua, erroz-gora, begiak odoletan. Etzuen hola baizik sinhes-ten ahal ardi haren galtzea. Iduritzen zitzaion oraino bizirik ikusten zuela hantxet, berrehun ardiren erdian alan ari, bortuko belar meheari tiraka.

— Alta egia izan behar dik, hila duk ardi hura. Luisek erranez geroz... Eta bizkitarte...

- 1) Nik daniat (deat) = je te l'ai
- Harek dauk = il te l'a
- Guk dauagu = nous te l'avons
- Heiek dauie = ils te l'ont.

Erreko daniat (ou deat) = je vais te cuire  
je te cuire

III ADITZ IKASKUNTZA.

- 31. emaiten zaizkidan 32. badakiat
- 33. etzezaken 34. diat.

31. UKAN. Conj. à dble Opt. Indicatif. Imparfait.

Objet pluriel

Complément Indirect: singulier.

Neri = à moi.

- Zuk zinauzkitan = vous me les aviez
- Harek zinauzkitan = il me les avait
- Zuek zinauzkitaten = vous me les aviez
- Heiek zinauzkitaten = ils me les avaient

32. JAKIN. Indic. Présent. O.S. Tutoiement

- Nik dakiat (zakiat) = je le sais = dakinat
- Hik dakik = tu le sais = dakin
- Harek diakik (ou zakik) = il le sait = diakin
- Guk diakiagu (ou zakiaqu) = nous le savons = diakinagu
- Zuek dakizue = vous le savez = —
- Heiek diakie (ou zakie) = ils le savent = diakinie

33 UKAN. Potentiel. Imparfait. O.S.

- Nik ukhan nezaken = je pouvais l'avoir
- Hik -n- hezaken = tu pouvais l'avoir
- Zuk -n- zinezaken =
- Harek -n- zezaken =
- Guk -n- ginezaken =
- Zuek -n- zinezaketan =
- Heiek -n- zezaketan = etc.

Objet pluriel: Ukhan nitzazken = je pouvais les avoir. U' hitezazken, U' zinezazken, U' zitezazken, U' ginezazken, U' zinezazketan, U' zitezazketan = ils pouvaient les avoir.